

ZIBEROERA ETA BATUA

Abiapuntuak: Ziberotarra naiz eta Batua baino lehen baziren euskalkiak. Beraz abiapuntu bezala hartuko ditut Ziberoa eta haren üskara (edo hobeki ezanik «üska(r)a»).

1.- ZER DEN ZIBEROA

Mikrokosmo hertsia bat; lurrez, politikaz, hizkuntzaz, psikologi-az hertsia.

A) *Lurrez hertsia:*

Ibar luze bat, Nafarroatik H.mendi goraz pikatua; Sartaldean Baxe-Nabarretik erdi maileko mendiz moztua; Sortaldean Biarnetik mendi apalez berezia. Iparraldean, bakarrik bi eskualde horietara zabaltzen da ukaitzaren bi ertzetarik.

B) *Politikaz hertsia:*

Estatu tiki bat izan zen, erdi independentea, hiru aldiz be-deren Biarnoren aurka borrokan, gero Frantziari lotua inguruko hiru eskualdeak nafar zirelarik.

Gaur berriz, Baxe-Nabarre ta Lapurditik berezia dago: Komerzioko Gela, Pauen du; Suprefektura Olororen.

Biarnori lotua dago «Sud-Ouest» kazeta ospetsuko orrialdeetan ere. Bi edizio badaude egunkari monopolista horretan: bata Euskal-Herrikoa, bestea Biarnokoa, eta gu Biarnokoa

gaude.

Goiko mendien mankomungoa bat badu Ziberoak, Ziberoko Zindikata; piska bat Andorrari pentsarazten duena. Maiz istiluak baditu artzainen artean Garaziko Zindikatarekin, bai eta Erronkari eta Saraitzukoekin. Azindaz oso kargatua da Ziberoko bortua. Beraz auzoetara gainditzen dira Ziberotarren saldoak. Alderantziz, ezin jasan litzakete bestatako azindak.

C) *Hizkuntzaz ere berezia da Ziberoa*

Horretaz ariko gera luzaki. Mementoko dugu erran, soilki hego aldetik dituela espanolez mintzo direnak; ipar eta sortaldetik, lehen Biarnesa, orain frantsesa; sartaldetik Baxe-Nabarreko hiru sub-euskalki: Garazi, Oztibarre ta Amiküzekoak. Ziberorarik oso hurbil daude, batez ere Amiküzekoa, hiztegitik gaingaitetik. Azentua berriz oso diferentea dute. Hor agertzen da halako muga bitxi bat: alde batetik Ziberoera, nahiko batua, bestetik «Manexen» mundu anarkikoa.

D) *Psikologiazkoa da gehien bat Ziberoaren berezitasuna:*

Eta berezitasuna baino gehiago, berezgoa. Ziberotar txobinismo bat badago ikaragarria. Erran nezake ziberotar separatismo bat, eta haboro ere, Ziberotar arrazakeria bat. Orroit gaitzen Etxahun Barkoxekoak bere herriko erretorari kantatu zizkion bertsetaz.

Une baten hau dio, aita alzaziarra zuen apezari:

«Alemanak beira
Espanulak bezala
Bere pekuen mendekus eta ürgüllüs gora,
zük erakusten dereiküzü kasta hartarik **zirela**».

Eta beste hau, erretora «manexa» zena⁷ geroztik.

«Barkoxeko aphezak
Oro dira manexak,
Ezkineroia oithian ükhen Ziberutar artzain bat,
Aberatsen eta prauben afable lizatin bat».

Hori ere, zoritxarrez, Ziberotar izpirituaren adierazgarri

dugu.

E) *Baina erdarari zabalik:*

Euskal Herriari hertsia, Pariseri zabal-zabalik idekia dugu Ziberoa, guziz trein bidearen bitartez. Herrian lan eskasez, Parisen higatu zaigu hanbat sehi eta neskame. Ta bistan dena, hango hatsa ekarri digute langile horiek. Eta ez bakarrik horiek. Oso frantximant bilakatua dugu Ziberoko jauneria, bereziki Maulekoa. Bere aferak Pauen eta Parisen dauzka.

Azkenekoz, etorkin asko badituzte Mauleko hiriak eta inguruko herriek, Sohütak eta Bidozek. Lehenik, etorri ziren hispanofonoak (Aragoitik, Erronkari deseuskalduntik), Mauleko jendetzearen herena osotzen zutela. Azken urteotan, berriz, Portugesak. Frantsesari dira integratzen, ez euskarari, ulertzeko den bezala. Kultura nagusian piska bat sartzeak ere lanik aski emaiten die langile xume horieri.

Dena dela, Euskal Herriari hertsia, bestei zabal-zabalik, hara gaurko Ziberoa.

II.- ZIBEROKO EUSKALKIA

A) *Ziberoera-hego eta ipar, baina batutik urruti:*

1.- *Ziberoera hego eta ipar*

Hegoaldetik genuen Erronkariko «üsker», beste nafar euskalkietarik urrun eta gure «üskaratik» oso hurbil, batez ere hiztegian. Mendian elgar aurkitzen genuen uda guziez, transumantziari esker. Neguan lanketa bazabilan jendea, batean Ziberotik Erronkarira, bestean Erronkaritik Ziberora, eskualde bateko eta beste ekonomia-aren gora-beheren arabera. Euskal Hitzak elgarririk emaiten genituen. Gainera, Erronkariko arartez duda barrik, espainol hitz asko hartu du Ziberoko üskarrik, haien beharrik ez zuenean ere. Hala nola: *arresak, solamente*, eta halako zenbat, beste euskalkietan aurkitzen ez direnak.

Erronkariko üskera Ziberoari lotu zuen Luis Lucien Bonaparte printzeak. Gaur uste da eta uste dut beste euskalki bat zela

Erronkarikoa, nahiz gureari hurbila. Baina hurbilagoak ditugu oraindik Baxe-Nabarreko hizkera batzuek, batez ere Amiküzeko zub-cuskalkia.

Dena dela, bukatu da, zoritxarrez, Erronkariko üskeraren auzia, hila baita osoki üskara hori. Han euskaraz egiten baldin bada berriz, batuen eginen da ene ustez, nafar kutsu aundia dukeen batuan noski. Nola ez, nafarrera baigenuke Euskaldun guzien batua, bi mendez kasik bere lur guzia galdu izan ez balu.

Gaur espainola dugu hego aldetik nagusi, nahiz Otsagin ez den arras hila nafar euskara, eta berpiztu nahiz ari den ikastolan eta gau-eskoletan. Esperantza bat bederen!

Baina orokorki, Erronkariko uskararen galtzeak, Nafarroako cuskalki guzien gibelatzeak, sekulan baino gehiago berezi dute Ziberoera. Beraz, hau dugu arras iparrekoa den euskalki bakarra, beste guziek muga gainditzen baitute.

2.- Batutik urrun dago «üskara»

2a) *Lehen*: Literaturari behatzen balin badiogu, ikusten dugu aspalditik berezia dagoela üskara.

Ezagutzen dügün lehenbiziko liburu mardula, hamazazpigarren mendean BELAPEYRE-ren *«Gatchiina laburra»* da, hain laburra ez baita. Hor ongi agertzen dira berezitasun batzuek, gaur ere baditugunak. Halere ohartzen gara geroztik beste euskalkietarik urrunduz joan zaigula üskara.

Belapeyre-k darabilki hitz batzuek, gaur ahantziak edo arrotzak ditugunak Ziberoan, baina beste euskalki batzuetan aurkitzen ditugunak (*«Hitz Arroztuxeak»* ikus).

Egia da garai horretan, Lapurtarra dugula batua, euskal idazle guzientzat eredu, ipar aldean bahintzat. Beraz horren kutsurik izan daiteke Belapeyre-ren üskeran. Baina ez dut uste.

Gogoan eduki behar dugu oso Ziberotarra eta xumea zela Belapeyre-ren publikoa = populu xehca edo behintzat katexima erakatsi behar zion apezzeria. Hau ere ez bide zen oso eskolatua

eta horregatik herriari katexima hitzez-hitz errepikatzen zion ez bere buruaren berotzeagatik ere. Hara Belapeyre beraren idazkietarik ulertu dutana. Beraz hamazazpigarren mendeko üskararen eredutzat har dezakegu Belapeyre-rena. Gaurko baino hurbilago da Lapurtarretik eta Batutik.

2b) *Orain*: Geroztik euskal hitz asko galdu dugu Ziberotarrek. Ordainak espainoletik hartu ditugu eta gehien bat biarne-setik. Adibidez, Etxahun Barkoxekoaren kantuetan biarnes hitz hainitz edireiten dugu.

Gaur berriz, gero eta gehiago berezten ari zaigu herriko üskera, euskal hitzak galduz eta ordainez frantses hitzak hartuz.

Beste bilakera bat gertatu zaigu. Lehen lapurtarraren entzutera ohituak ginen apezten arartez. Orain Baxe-Nabartarra dugu nagusi ipar alde guzian. Ziberoeratik hurbil dago, baina batutik urruntzen gaitu. Ordainez, espainol hitz franko sartzen diote baxe-nabartar abertzale gazteek, batuarena egin nahiz. Hori zinez bitxia iduri zaio Ziberotar soilari. Beraz, errexena da beste Euskaldunekin frantsesez artzea.

Mendiko mugetan dituzten ez-da-baiden zuzentzeko noizbenka biltzen dira Zibero eta Garaziko artzainen ordezkariak. Barra-barra frantsesez hasten dira beren biltzarretan, non ez den abertzale bat edo beste horietan gertatzen aski kementsu bere etsenpluaz eta aholkuaz euskararen inposatzeko. Horretan gaude Euskal-Herriko mendi-mendian ere!

Beraz batutik eta beste euskalkietatik urruntzen ari zaigu Ziberoran herriko üskera.

Pobretuz urruntzen ari da:

- Hitz berririk ez du asmatzen; frantsesetik hartzen ditu.
- Hitz zaharrak galtzen ditu gainera, haien ordainak ere frantsesetik hartuz. Euskaraz ongi dakitenen artean ere, pobretuz doa Ziberoko üskera: duela hogeitau urte euskaraz emaiten zituzten hitz batzuek frantsesez emaiten dituzte gaur jente xaharrek, frantsesaren entzuteak eraginik edo

gazteagoen euskara mordoiloaz kutsaturik.

2c) Ziberoaren berezitasun nagusiak zeintzu diren: Aditza, hiztegia, ahozkatzea, azentua.

a) Bere aditz formak baditu Ziberoerak: Baina ez dira batutik hain urrun gelditzen. Lapurtarraren forma ospetsu baina astunak baino askaziago ditu, ene ustez, Batuarentzat hartu diren giputz forma sotilagoak.

b) Hiztegian ere baditu berezitasunak, azken mende hauetan haundituz etorri zatzkigunak. Baina behar gabeko biarnes edo frantses hitz batzuek baztertuz, Ziberoerak ere bazituen euskal hitzak berriz lekuratuz, ez gara uste bezain urrun geldituko.

c) Fonetikan eta ahozkatzean ditugu diferentzia haundienak:

- Alde batetik gure «ü» famatua. Baxe-Nabarreko Amiküzen ere ugari aurkitzen dena, eta Hazparnengaindi Uztaritzeraingo sartzen dena kasu bakar batzuetan: Hazparnen «zaküa», urtsüa, eta abar... Uztaritzen züin, bazüin, ez züin, eta abar... Ziberoako «ü» delakoaz aholku bat: Ziberoe-razko testo baten erraitean edo kantatzean ez balin bazarete arras trebatuak, hobe duzue beti «u» erranik. «ü» desegoki baten entzuteak belarrian min handia egiten digu, kantari batzuen ahotik adibidez.
- Bestalde, «r» bakun guziak iresten ditugu! horien ahozkatzen ez dakigu. Horren jateak zinez itxuraldatzen du hizkera.
- Hitzen bukaera ere jaten dugu askotan: *mendin, etxen, jun, Aimunen lau semik, basa metalik*, eta abar luze bat. Orain arte, Pettarrean genuen hola egiten, aldiz Basabürrian hitza osoan emaiten zuten. Baina han ere Pettarrari jarraituz, hitzen jaten hasiak dira gazteak, eta adio etxea!

Ortografia zuzen batean idatziz geroz, beste euskaldunen-tzat askoz ere errexagoa litzateke Ziberoera. Baina beren hizkeran oso analfabetoak dira Ziberotar gehixenak. Ez dakite horren idazten ez irakurtzen. Hara muga bat gehiago.

d) Azken berezitasun bat: Ziberotar azentua. Hizketari erritma

haundia emaiten dio, gorabehera zehatz eta zinez markatuekin. Espainol azentuaren egite zerbait baluke. Azkenaren aitzineko silaban dago maizenik. Ziberoko euskalkiaren ezaugutgarri nagusien bat daukegu duda barik.

B) *Ziberoaren etorkizuna eta erreibindikazioa zein momentutan aurkitzen da?*

Azken urte hauetan agertu da ziberotaile tradizional zenbaiten artean. Ikastolen aurka eta Euskaltzaindiaren aurka sortu da.

Ikastolak kritikatu dira, erakasten zuten euskara ez zela Ziberoko üskera, eta gainera ez zela euskara garbia, baizik hizkera mordoila bat, espainolez brokatua. Hori ez da egia, zeren Ziberotarrak dira Atarrantze ta Mauleko erakasleak. Arras ongi eza gutzen ditut eta badakit ziberoeraz erakasten dutela.

Hitz berriak batutik hartzen dituzte, hori bai, edo beste euskalkietarik, eta ez frantsesetik. Aldiz, ziberotar tradizional batzuek alderantziz nahi luteke, adibidez dortokarentzat *tortua* erran dadin, frantsesez *la tortue* baita, «Manexen» *apo-harmatua* gaitzesten dute. Beraz, ziberoera zaindu nahi dute, ez frantsesaren aurka, baina «Manexa»-ren aurka, batuaren aurka.

Nik diot üskeraz axola guti dutela. Eta froga hoberena, beren hurrei ez diotela erakatsi, berek ongi jakin arren.

Ziberoan badago belaunaldi oso bat, gerla denborako belaunaldia, euskarari uko egin diona pratikan behintzat, hurrei gutiegi erakatsi duena: gure aurreko belaunaldia. Eta zaharra-
goek ere horren ondotik amor eman dute. Adierazgarri da haur batekin edo gazte batekin topo egitean, sistemakoki frantsesez egiten diotela, etxe-koek erranagatik. «Baina euskeraz badakite! euskaraz egiozu arren!

Horrek erran nahi du euskera galdutzat daukatela zaharrek. Sendimenduz atxikiak zaizkio, baina haren etorkizunean ez bide dute sinesten: «Zaharkeria bat da, gu bezala, eta gurekin itzaliko da.

Ez da gazteentzat. Eskolatuak dira. Orai frantsesez ari behar da duda gabe». Hara iduriz zaharren ikuspegia.

Arteko askok aldiz uko egina dio, antza. Nola entelega daiteke bestelan haurrei ez hainbat erakastea? Gerla ondoan frantses txobinismoz kutsaturik egon da jende gazte asko. Berdenporan neo-kapitalismoan sartu da erdiz erdi nekazalgora. Auto-kontsumotik merkatura pasa da eta horrela bere gaintasuna galdu du. Beraz kultura mailean ere, modelo berria beretu nahi izan du jendearen parte batek.

Hizkera tekniko frantsesari hartu dio beste jende guziak ere, nahi ala ez. Azken batean, frantsesez artzea da erraxena: hortara garamatza gizarte osoak. Eta joera horren aurka borroka egiteko beharrik edo ahalik ez du sentitzen ziberotar askok, Euskal-Herriko mugak eta Ziberokoek bat ikusten dituelarik gainera.

«Zertako da üskera? Sarrikotatik behera ez da baliatzen». Hara maiz entzuten dena. Sarrikota dügü beraz, Mauletik hamar kilometrotan, Euskal-Herriko muga, iparretik; Altzürüko beste muga hego aldetik, hamar kilometrotan hau ere.

Beraz, ezin bestean, ziberoari diogun atxikimendua sendimendu hutsean ahitzen da, xederik gabe. Ohiturak zaintzen dira, axala salbatzen da, bereziki dantza. Uskera ez da defendatuko, non ez den batuaren aurka, manexaren aurka, hots arrotzaren aurka. Frantsesera ez dute arrotza hola pentsatzen dutenek.

Euskaltzaindiaren aurka ziberotar Akademia bat eraiki nahi izan da. *«Sü Azia»* izeneko batasuna sortu da. Baina gertatu da gazteak esabide beraz abertzaleak direla ziberoko euskalzaleak. *Zü Azia»* beren gain hartu dute sortu den egunean, gehiengo baitzuten biltzar nagusian. Eta beraz Euskaltzaindiarekin ari da *Sü Azia*, üskera hazi nahiz batuaren aldean, eta ez honen aurka. Adierazgarri da ikastolen lehendakari izandakoa dugula *Sü Azia*-ren buruzagia, biena zelarik gainera une batez.

(III. **Ene alorrean**; lana luzeegia dela eta albo utzi dugu).

C) Oraingo egoera:

Oraingo egoera ez da oso ona Ziberoan, gorago ikusi dugunez. Froga gehiagoren beharrik baldin balitz huna bizpahiru:

- Herri irrati bat badugu Ziberoan, *Xiberoko Botza*, eta beste zenbait beste bi probintzietan: Irulegikoa, Milafrangako «*Gure Irratia*, *Radio-Adour-Navarre*,... Gehienetan mezak izaten dira igande goizetan: Lapurdin eta Baxe-Nabarren euskaraz bistan dena, eta Ziberoan frantsesez gehienetan, kantuak ezik.

- Haurrak euskaraz entzuten ziren berriki arte herri bakar zenbaitetako plazetan: Altzaien eta Altzürükün bereziki. Orain frantsesez omen Altzürükükoak ere, ARXU-ren herrian. Euskararik ez dakite ene herriko humeek, Urrüskoitarrek, d'AB-BADIE, d'ARRAST haundiaren herritar gazteek.

- Barkoxen azken maskaradetako kantari euskaldunik ez omen zuten aurkitzen gazterian, alde zaurretik idatzitako bertsoak zenbaiten ongi emaitako gai zaitekeenik: Atarratzeko mugan ediren dute bat, menditarra, oso Barkoxtarra ez izan arren... hara zertan dagoen ETXAHUN zaharraren herria.

Euskara luzaz atxiki dute apezek. Azken hogeita-bost urte hauetan amor eman dute guztiz gehienek Ziberoan: lehenik apez manexek, nekezago ari baitziren, jendearen txobinismoagati, oportunistoz, alferkeriaz... Eta gaur üskera uzten dute ziberotar apezek ere. Salbuespenak errexki konda daitezke esku bakar bateko errietan: Roger IDIART ziberotar berria, aita Junes CASENAVE-HARIGILE, JohaÑe EPPHERRE, eta beste-rik badeia?

D) Etorkizuna

Etorkizuna batutik pasatzen da nahi ala ez. Ziberoera, frantsesak hiltzen du, ez batuak. Alderantziz batuak du biziaraziko. Ziberoera eta batua, biak behar ditugu elgarren laguntzaile ta osagarri.

Batuaren erroak eta sustriak eta zainak dira euskalkiak.

Hauek gabe, ezin da bizi batua. Hizkera hotz eta motz, artifizial, mineral bat gerta laiteke, sendimendu barik, bizirik gabekoa, esperantoa bezala. Arbuia lezake jendeak, gauzen senditu beharra baitu, berotasunaren beharra baitu gizakiak. Bihotza hunkitzen ez diñon euskara bat ez du onartuko populuak.

Beren aldetik pobretuz eta murrizuz doatza euskalkiak, Ziberoera behintzat; normarik gabe, hitz berririk gabe, hedadurarik ez prestijiorik gabe. Batuaren zurkaitza behar du ziberoerak, zutik egoiteko. Normak behar ditu, hitz berriak behar ditu, irakurlegoa bat behar du Ziberotik at, bestelan ezin da liburu bat atera úskeraz. Adibidez, batuaren ortografia berdina behar du ziberoerak; hori gabe ezin irakurria da.

a) *Ni nola jokutzen naizen, alde batetik Ziberoerarekin, besteetik batuagaz.*

Ziberoeraz idaztean, ahal oroz baztertzen ditut hitz oso lokalak, arraroak, bitxiak edo arrotz etorkikoak (hau da: biarnes eta frantses hitzak). Euskal Herrian zehar hobekienik ulert daitezkeen hitzak hautatzen ditut. Ipar-aldean behintzat, nor nahik entelegatzekoa da ene ziberoera.

Alderantziz, nafarro-lapurtarrez edo batuan, ziberotar kutsu haundia dut, baina beti ere konprenitua izateko kezkarekin, bai hiztegi mailean, bai estiloan. Perpau laburrak xerkatzen ditut, xinpleak, ahalaz itzuli-mitzuli gabekoak. Ez da beti aise xinpleki artzea. Askoz errexago da konplikatu izatea.

Irakurleari pentsatu behar da beti, bereziki kazetaritzan, erakaskuntzan, informazio bat hedatu nahi denean. Horretan zerbitzu egiten dit ziberotar izateak: beste euskalki batekoek edo bestekoek dituzketen nekeziei pentsatu behar dut beti. Ordainez klasikoen bakuntasun sendoa sartzen dut ziberoeran.

b) *Azken batean, etorkizuna gazteriaren eskuetan dago:* Euskaraz egin behar du lotsez ahalke gabe, hasieran gaizki egin arren. Gero hobeki egiteko gogoia ere behar du bistan dena. Baina lehenik egin.

Euskal-Herri guziari idekia dago Ziberoako gazteriaren zati

on bat, abertzale gazteen eraginez.

Euskal irratiekin kurutzatzen da *Xiberoko Botza*. Euskal-Herri osoko berriak emaiten ditu egunero, goiz, arrats eta eguerditan.

Berriki Ziberoan sartu zaigu Herriz-Herri, Donapauleko astekaria. Gehiena frantsesez idatzia da zoritxarrez. Horren euskara batua kritikatu dut, oixtian, Baxe-Nafarrera plus gaztelera puska bat; ez baita nik nahi nukeen euskara batua. Baina lehenik dator euskaraz artzea. Gero etorriko da, agian, hobeki artzea.

Arrakasta haundia dute bestalde hego aldeko kantariak, bereziki Benito LERTXUNDI-k, bai eta «manex» batzuek: ETXAMENDI-LARRALDE, MARTIKORENA eta beste zenbaitek ere.

Euskal-Herrian integratzeko nahia bada beraz Ziberoko gazterian, edo behintzat hunen zati on batean. Horrela harremanak sortzen ari dira Ziberoeraren eta beste euskalkien artean.

Aipa dezadan ere bizipideen mailean Euskal-Herriari lotzen ari dela puska bat Ziberoko nekazalgora, Donpaleuko merkatuari eta *Lur-berri* kooperatibari esker.

E) *Euskara batua eta euskalkiak nola elkar bizi araz daitezke, euskalkiak batuaren iturburu direla badiogu?*

a) *Ziberoera bada*go. Eri da, baina ez da hila. Batua baino lehen bazegoen. Batuari ezer ekar diezake?

1) *Aditz forma batzuk:*

. *Indikatiboko gero-aldia:* Nizate, hizate, date, girate, zirate, zirateie, dirate. beraz *batuan:* naizate, haizete, date, garate, zarate, zarateie, dirate.

. *Gero-aldi arkaikoa:* Iraganaren partizipioagaz erabiltzen dena: (heltü) nizateke, hizateke, dateke, girateke, zirateke, ziratekeie, dirateke, *batuan:* naizateke, haizateke, dateke, garateke, zarateke, zaratekete, dirateke.

. *Potenzial berezi bat:* Niro, hiro, diro, (liro), giniro, zi-

niro, ziniroie, diroie (liroie).

Nitiro, hitiro, ditiro, zintiro, zintiroie, ditiroie (litiroie).

2) *Bestalde hiztegi aberatsa puntu zenbaitetan*, hala nola mendiko piztietaz. Adibidez Lapurdin eta Baxe-Nabarren: *arranoa* deritzaio harrapari haundi osori. Ziberoan ere gero eta gehiago, zoritxarrez. Baina hor zenbaitek oraino badauki nola berez daitezken *arranoa*, *sai zuria* (butre zuria), *sai beltza* (butre beltza) batuan, *sai-arrea*, *ügatza* (hezur jalea), eta abar...

Halaber Baxe-Nabarren adardun guziak *basahuntz* dira. Baina guk berezten ditugu *orkatza* eta *basahuntza* (sarrío):

Hiztegi hori batuan sartu du Aranzadi natur zientzia taldeak eta ez da harritzeko, horretan lan egiten baitu Txomin PEILLEN-ek.

Beraz ez gara eskuak hutsik Ziberotarrak. Alor batzuetan eta bereziki mendiko biziaz badugu zer ekar.

b) *Bere aldetik zer ekar diezakegu batuak: ortografia eta hitz berriak.*

1) Euskal ortografiaren zentzu izpirik ez dute Ziberotarrek, ez baitute euskaraz idazten ez eta irakurtzen. Uste dute ahozkatzen den bezala idazten dela.

Elizak Ziberoan derabilan ortografia erdi normalizatuan irakurtzen du pratikatzen duen gutiengoak. Ortografia erdi fonetiko bat da. «H» guziak idazten dira, kontsonanteen ondotik ere. Bai eta idazten da *etxia*, *Xiberua*, eta abar...

Nik Euskaltzaindiko ortografian izkiribatzen dut ziberoeraz ere, hitzen erroak eta deklinabidearen legeak errespetatuz. Adibidez *etxea*, *Ziberoa*, eta abar. Baina horretan bakarra naiz.

Halere ortografia horretara dator Aita *Casenave* ere, kontsonanteen ondotik H kenduz *Ziberoa*, idatziz eta abar... Salbuespen bakar bat aitortzen du: *etxearen* hori; Ziberotarren psikologiagatik gogorregia isuritzen zaio, eta ulertzen dut. Baina nehon

ez dut entzun *etxea* ahozkatzen, eta bizkitartean *etxea* idazten da denetan, *etxe* bat delakoz, eta ez *etxi* bat.

Uste dut Euskaltzaindiko ortografia normalizatuan idatziz geroz, askoz errexagoa gertatzen dela ziberoera beste euskalkietako irakurleagoarentzat. Adibidez *Ibañeta* pastoralara har dezagun: alde batetik ziberoerazko orijinala, bestetik batuan emana. Zinez arte ttikia da bi testoen artekoa. Egia da arras ongi idátzia dela pastoral hori, eta batuan ongi emana.

2) Ortografiaz bestalde, *hiztegi berri bat* dakarkigu batuak: itsasoko hiztegia, hirikoa, industria eta komerziokoa, zientziakoa ere bai.

Halere uste dut sail batzuetan mugatuko dela ziberoera idatzia: bere ohizko alorrean eta horren inguruan: pastoral, olerki, eleizkizun, ipuin, kazetarigoan, beheko erakaskuntzan ere bai.

Beste alorretan nagusi du eta duke batua. Horrek ez dio ezer kentzen ziberoerari, alor horiek ez baititu betetzen üskera, ez eta beteko. Gaur frantsesak ditu betetzen; beraz frantsesari dizkio hartuko batuak, ez ziberoerari. Adibidez zientzian, unibertsitatean, literatura gehiengan, eleberria barne, aukera ez da ziberoera eta batuaren artean, baizik frantsesa eta batuaren artean.

(Ezin luzatu eta aurrerantzean parraforik jakingarrienak ezartzen ditugu)

«Euskadi osoan ez dut beti zuhartzia bera kausitzen. Maizegi nork bederak bere euskara hertsia hartzen du, ortografia normalizatua emaiten dio, H barne, hitz espainolez edo berak asmatu neologismoz betetzen du eta dekretatzen du: hau da batua. Baxe-Nabartar gazte batzuen eredia aipatu dut gorago. Hego aldean ere badago holakorik, ni beldur.

Hizkuntzaren batasuna ezin da horrela egin. Aitzinetik ere izan dira idazleak, ez ditugu ahortzi behar. Oraiko maixuak ere ez ditzagun bazter utz. Denen beharra bada, eta denek elgarrekin dugu euskara batuko, ez bakarka.

Ez dugu horregatik arkeologian egon behar. Tradizioa kontutan eduki dezagun baina gaurko bilakera eta beharrak halaber. Adibidez, ezin naiz egon hamazazpi garreneko Ziberotar idazleei so eta begira, ondotik etorri direnak baztertuz, zenbaitek nahi luketen bezala. Barkatu baina, bizirik dirau ziberoerak oraino. Ondotik erę izan dira idazleak. Eta orain ere badaude ziberoeraz dakitenak eta idazten ere badakitenak».

(Azkenik, hemen dituzue txosten luzearen azken lerroak)

«Bi etsai dauzka batasunak: *probintzialismoa* eta *prusianismoa* edo hobeki erranik probintziarkeria eta prusiarkeria.

Probintziarkeria zer den, ongi badakit ziberotar bezela eta oixtian salatu dut Beldur naiz holako zerbait ez ote den hego aldeko toki eta izpiritu batzuetan. Zokokeria Euskal-herri osoaren aurka.

Prusiarkeria da, berriz, batasunaren bortxaz bilatzea. Hots arkeria -prokustoren ohea. Beste sail batzuetan horrela egin daiteke, agian, baina hizkuntza mailean ez. Gorputza bortxa daiteke, izpiritua ez. Eri dago euskara, gaxorik dago Euskal-Herria eta gehiegizko bortxakeriaz hil gikiro. Herritarren gogoak kontutan hartu behar dugu eta heinbat emeki xertatu, nahiz presa dugun.

Denboraren aurka egina, naturaren aurka egina ez du errespetatzen denborak, ez eta populuak.

Probintzialismoaren eta Prusianismoaren artean, ateka hertsia dugu, beraz eta ongi nabegatu behar dugu Karibda eta Zilaren artean bezala, idazle ta irakasleek.

Baina bistan dago, euskararen salbatzeko, euskal eskola publikoa bat ere behar dugula, euskal administrazio bat ere behar dugula, Frantziak bezala.

Eta bitartean, euskal telebista hartu behar dugu iparrekoek, euskal irratia ere bai bistan dena. Honara etorri behar dugu maizago kuraia puska baten bila. ARGIA kazeta gehiago irakurri,

eta abar luze bat.

Zuek ere Ipar aldera maizago etorri behar duzue, bereziki Pastoralen ikustera. Ipar aldeko idazleak irakurri, hamazazpigarren mendekoak segurki, baina gaurkoak ere bai. Horrela eginen da euskeraren batasuna, bai eta Euskaldunena ere.

Bukatzeko

Ttikia da Ziberoa. Bizkai edo Gizpuzkoaren herena du gure lurak. Hamazortzi mila biztanle gara. Horietarik hamar bat mila ziren, duela dozena bat urte, euskaraz bazakitenak, Pedro de YRIZAR jaunaren ikertze baten arabera. Orain zenbat ote?

Ziberoera hil baledi, Euskaldun guti gal lezake Euskal-Herriak. Baina euskalki bitxi horrekin batera, hamar bat mila Euskaldunekin batera, lur zati bat gehiago gal lezake. Jadanik badu aski galdurik eta guti zaio gelditzen. Horrela jarraikiz, lurrik gabeko populu bat bilaka laiteke Euskaldun jendea: Palestindarrak bezala. Lehen juduak eta Kartago bezala, atzo Alger bezala, gaur Noumea bezala... Bistan dena, ez dute balio eta erran nahi berdina etsenplu horiek guziek. Nahas-mahas erraiten ditut kolonistatuak eta kolonizatzaileak. Euskaldunak ez omen gara kolonistatuak. Ez dakit hala garen ala ez zentzu heretsian. Ongi dakitana da ordea, gu ez garela kolonizatzaileak, gure lurrcan gaudela hemen Euskaldunak, arraina urean bezala, eta ura kendu nahi digutela!

Eta lurra galduz gero, galdu garatekeela. Zergaitik uste dugu baztertzen digutela Nafarroa, baztertzen Ziberoa? Ez da jende kopurua gatik, hain guti gara Nafar eta Ziberotarrak. Baina mapa baten begistatzen badakite gure etsaiek. Guk ere ikas dezagun. Hizkerarekin batean, lurra salba dezagun. Euskal-Herria, euskararen lurra baita.

Urbanoa izan behar dala, bai segurki. Eta hala gara gaur baserritarrak ere: Makadamua, korreoa, egunkaria, telefonoa, irratia, telebista, laster konputadore eta ordenadorea baserrian, hala egia. Hil zen baserritarkeria. Hil bedi halaber urbanokeria, oi

baina berehala! Getotik atera gaitezen. Karrika muturrean hasten da etsaien mundua!

Hego aldeko haurrideak, sokotik atera zaitezte, iparrean dago zuen geroa. Eta gu Ziberotarrak, iparrekoak, ama-lurraren *humaitzetik* atera gaitezen, hego aldean baitugu etorkizuna. Elgarren beharra badugu elgarrekin egin dezagun Euskadi euskalduna, hau da XAHO, CAMPION, BADIAREN *Zazpiak bat*.

J. L. DAVANT
Ziberotar olerkari-kazetaria

Oharra: Esan den bezala, aurreko mintzaldi-atal luze hau, J. L. Davant-ek Eibarko ihardunaldian emandako hitzaldiaren erdi ingurua da.

BANCO DE BILBAO

100 urte baiño geiago bezeruen zerbitzuan

**ESPAIÑA'KO BANKO BAKARRA
ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN**

Ofizinak: Karmen kalean, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)